ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2026ko urriaren 23a, ostirala • 122 zk.

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AÑANAKO KUADRILLA

2023ko lan-eskaintza publikoan deitutako orientatzaile-plaza baterako bi epaimahai kalifikatzaileak osatuko dituzten kideak izendatzea

Añanako Kuadrillako lehendakariaren 2026ko urriaren 8ko 171 zenbakiko ebazpenaren bidez, laburbilduz, honako hau erabaki da:

Lehenengoa. Epaimahaikideak:

Titularren zerrenda:

Presidentea: Isabel Calderero Anguiano.

Idazkaria: Mª Mar Belategui Izar de la Fuente.

1. bokala: Kepa Ansotegi Uribarri.

2. bokala: José Javier Gómez Arana.

3. bokala: María Jesús Calleja Ros.

Eta ordezkoen zerrenda:

Presidentea: Raquel Abascal Hermosilla.

Idazkaria: César Ortega Amestoy.

1. bokala: Mikel Gotzon Aparicio.

2. bokala: Julia Espina Diez.

3. bokala: David Álvarez Rodríguez.

Bigarrena. Euskara-probetarako epaimahaikideak:

Kide titularra: Danel Lauzirika Erkiaga.

Ordezko kidea: Katarzyna María Piejko-Martínez.

Lehendakaritzako 171 zenbakiko ebazpenaren hirugarren ebazpen-zatiaren arabera, ebazpen hori osorik argitaratuta dago Añanako Kuadrillako egoitza elektronikoko iragarki-taulan eta haren webgunean.

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik aurrera, Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/98 Legearen 8. eta 46. artikuluetan ezarritakoaren arabera (lege hori 2003ko abenduaren 23ko 19/2003 Legeak aldatu zuen, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 114. artikuluarekin bat etorriz).

Hala ere, nahi izanez gero, eta aurreko paragrafoan adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri aurretik, berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman duen organoari, hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik aurrera,

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan eta horiekin bat datozenetan aurreikusitakoaren arabera. Horrez gain, egoki iritzitako beste edozein errekurtso ere aurkez daiteke.

Guztiek jakin dezaten ematen da horren berri.

Ribabellosa, 2026ko urriaren 15a

Lehendakaria
RUBÉN TORREMOCHA GALÁN

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Firmante: CN=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 267116
Fecha de firma: 2026.10.23 05:45:47 Z